

ZENBAT BURU

Amaia Urzeiai

ERREPORTAJEA

Kale-auzoetako

bizitza: Sigma eta

San Pedro

# BARRREN

1996 martnaren 12a  
VII. urtea - 270. zia

E L G O I B A R K O A S T E K A R I A



UDALETXETIK

PPko Juan Carlos

Abian zinegotziaren  
erantzuna alkateari

BERBETAN

Ma Jose San Juan

*Bide-Egineko*


gozogintza irakaslea

K1ROLA

Egoitz Mora,

Espainiako Judo

txapeldunordea



Sigma eta San Pedro:  
**Lantegien itzalean  
hazitako auzoak**



# Martxoak 19

# San Jose eguna

**ABARKA**  
zapatadenda



**APRIL lurrindegia**



**AZKUE**  
argazkigintza



**zuk zeuk**  
egin ezazu!



**CASCANUECES**  
brikolajea



**ENARRO**  
mertzeria

# aitaren e una

**GARATE**  
estankoa



Bruce Willis

**IKUS optika**



**IRION O**  
kirolak



AMAIA URZELAI

## Hamaika istorio

**T**vatunga Benbe ezagutzen al duzue? AEKren Txotx egunean aritu ziren, Astigarragan, hilaren 6n. *Ticatumga Benbe* taldekoak hamaika lagun dira. Hamaika lagun tinbalak eta tanborrak jotzen. *Morcut* ere bertan zegoen: Gasteizko Parralen eman zuen kontzertu batean, ahesten hasi aurretik, besteak beste, euskaldun onaren eta txan'aren istorioa kontatu zuen: euskaldun ona Argiñanoren eta Ferurenaren arteko norbait omen da. Euskaldun txarra, berriz, fama txarra daukaten hen'ien kongresu batean egon zen. Hitzalditik hitzaldirako tartetako batean, kanibalekin kafea hartzera joan zen. Kafea dastatzen zuten bitartean, kanibalek fama txarra izateko arrazoia topatu zuten: euskaldun txarren lagunak izatea, alegia. Hauetaz gain, beste hamaika gauza egon zen Astigarragan AEKren Txotx Egunean. Badakit hamaika pertsona bilduko zela. Badakit baita ere, kamarak egotekotan, ETB-koak baino ez zirela egongo.

Txotx Egunean hamaika + bi egunetara, Korrika! (stop) Korrika! (stop) hasiko da, eta Madrilgo kamarek ez dute Iekukoa hartzen duen gizontxoari jartzen zaion oilo ipurdia ikusiko. Duela bi urte, 10. Korrika izan zenean, lagun batzuk Korrika zer den galdetzen hasi ziren Gasteizko kaleetan. Ez zen bat, ez ziren bi izan Korrika ezagutzen ez zutenak: dexente gehiago ziren. Seguruen euskalduna (euskalduna=vasco onartuz gero) sentitzen den batek, berriro galdetuko dit euskararen aldeko beste ekitaldi hau zergatik egiten den, ez baitu gure hizkuntzan arazorik ikusten. Ez dut uste gure xexen arrazoia ulertzen duenik.

Euskaldun unibertsitari honek, duela bi aste ezagutu zuen Bai Euskarari kanpaina. Kasualitatez, berbetan geundelako eta gaia ir-

ten zelako. Gutariko asko gelditu ginen Anotara joan gabe, urteko azken zapatua baitzen, Gabonzahar FERIA Elgoibarren. Gainezka egon ziren estadioak!!! Sartu ezinik gelditu zen inor ezagutzen al duzu? Baliteke egon, horrelako jendea badago eta. Egun hartan, Euskal Herria komunikabide guztietan agertu zen. Kale borroka izan zen Euskal Herria komunikabideetan agertzeko arrazoia. Miramon eta Iurretako kamarek bakarrik kontatu zuten estadioetan gertatutakoa.

Beharbada oker nabil. Beharbada Euskal Herria komunikabideetan ez zen abenduaren 26an agertu, akaso urtarrilaren 9a izan zen kale borrokarena komunikahide orotan azaldu zuten egun garrantzitsua. Ez dio axola: bai abenduaren 26a, baita urtarrilaren 9a ere gogoratzean zirrara sartzen zait. Zirraren ondoren begiak amorrus betetzen zaizkit. Bi egun horietan gure herria kalera irten zelako, Bai Euskarari' esatera batean, eta 'Euskal Presoak Euskal Herrira' bestean. Madrilgo kazetariak ondotoxo dakite hemen zer gertatu zen, baina ez zuten pantailatara eraman.

Bart, Mafalda irakurtzen egon nintzen. Bere ustez, egunkariak gertatzen denaren erdia kontatzen dute, eta erdia asmatzen; beraz, ez dira existitzen. Mafaldak esandakoari zera gaineratu nahi diot: egunkariak eta komunikabideek kontatzen dutena ez da existitzen. Madrilgo jendeak ez zuen urtarrilaren 9an Bilbon egon zen manifestaldia ikusi, beraien-tzat ez da existitzen. Beraiek ez dituzte sekula ikusten gure herriak eskatzen dituenak.

Bukatzeko, ezagutzen al duzu aurtengo Korrikaren mezua? `1+1=I I Bateko hori ni naiz, zu zara, gu guztiok gara!!! 11 gara! Hurrengora arte eta ondo segi!

Atal hau ez da BARRENen editoriala. Urtero 15 lagun inguru aukeratzen dira eta txandan-txandan idazten dute. Kolaboratzaileen ankeraketa egiterakoan, besteak beste, pluraltasuna izaten dugu kontuan. Gaiari dagokionean, berriz, kolaboratzaile bakoitzak nahi duena aukeratzen du.

Barrak, Birkak eta Barreak





Nafarroa enparantza, 2  
20870 ELGOIBAR  
Tir 943 74 41 12  
Publizitatea:  
943 74 37 04  
Faxa: 943 74 37 04

E-nea: barren@topagunea.jalgi.com

ARGITARATZAILEA Elgoibarko Izarra

LAGUNTZAILEA Elgoibarko Udala

KAZETARIAK Irati Agirreazatdegi, Asier Orbea

PUBLIZITATEA Maitane Cid

MAKETATZAILEA Bea Ansola

ADMINISTRAZIOA Amaia Martin

GERENTZA Rafa Alvarez,

M. Angeles Ortuoste.

KOLABORATZAILEAK Amaia Andonegi,

Aitor Argarate, Idoia Arozena,

Aitzol Arriola, Martin Dominguez,

Jon Eugi, Juanito Gorostiza,

Arnaitz Gorriti, Ion Gurrutxaga, KOKOE,

Imanol Larrañaga, Aintzane Larrea,

Ion Loiola, Ongarri Zine Kluba,

Iñigo Otaño, Jon Peti Uriguen,

Iban Unzar, Amaia Urzefai,

Maite Vaflejo, Lourdes Zublaurre.

BANAKETA ARDURADUNA Imanol Larrañaga

FNPRIMATEGIA Gertu Koop, E.

TIRADA 4.000 afe

LEGE GORDAILUA SS-1.038/92

ISSN 1139-1855

Elgoibarko Udalak, Eusko  
faurlaritzako Kultura  
Sailak eta Foru  
Aldundiak diruz  
lagundutako  
aldizkaria.



fundazioa  
undaciOn

**4 DANOBAT**

**S'GOITI**  
GRUPODANGIAT

## luzenketa:

Duela bi asteko KiliBARRENe-ko erreportajea, Mendaroko Talde Independentek egindako adierazpenak ez genituen behar bezala azaldu. Hona hemen Mendaroko Talde Independentek bidali digun luzenketa:

## Mendaroke Talde Independentearen azalpena

Jarraian, KiliBARRENe-ko kolaboratzailearekin izandako elkarrizketan zer esan genuen azalduko dugu. Gure azalpena ez da luzatuko, proiektu hauek azalpen luze, zabal eta kontestualizatu bat eskatzen dutelako, eta hori, orain arte bezala, aldizka kalera-tzen dugun MTiko aldizkari informatiboan egingo dugu. Hemen ernandako azalpenak KiliBARRENe-ko kazetariarekin hitz egindakoak dira eta grabazio batean jasota daude.

1- Industrialdea: Mendarorako proiektu hau gauzatzea ona da. Beti ere, proiektua gauzatzeko agertzen diren arazo guztiak (espropiazioak barne) era zuzen eta elkarrizketatu batez konpontzen badira.

Artikulu hori esan arren, puntu honetan, MTik ez zuen aparteko baloraziorik egin alkatearen jokabidearen inguruan.

2- Etxebizitzak eta txaletak: hasteko, MTik ez zuen txaletei buruzko aparteko baloraziorik egin, azken batean, txaletak etxebizitza eskaintza ezberdin bat baino ez direlako. Gai honetan adierazi genuen gauza bakarra zera izan zen: Mendaron etxebizitzak eraikitze orduan ez dagoela ikuspegi globalik ez eta etorkizunerako planifikaziorik ere. Bide batez esan nahi dugu arau subsidiarioak existitu arren, azken lau urteotan behin eta berriz aldatu direla, irizpide ekonomikoak irizpide urbanistikoak baino inportanteagoak izan baitira.

3- Udaletxe berria: jakineko gauza da Udaletxe berria egingo dela eta

## Oharra:

Datorren astean, San Jose Eguna dela-eta (hilak 19), BARREN osategunean banatuko dugu, hilak 18. Beraz, ohar, informazio, iragarki etab. ekartzeko azken eguna astearte eguerdia izango da.

baita non egingo den ere. Gure ustez proiektu hau ez da Iehentasuna momentu honetan, baina proiektua onartua dagoenez, egin, egin behar da. Kasu konkretu honetan gure desadostasuna, proiektu hau aurrera eramateko jarraitu den bidearen ingurukoa da. Udaletxe berria egiteko arkitekto baten proiektua ikusi eta besterik gabe berau onartu da. MTik uste du kasu honetan, beti egiten den moduan, lehiaketa publikoa egin beharko litzatekeela, muga presupuestario bat ezarri (proiektu guztiak bideragarriak izan daitezten) eta beste arkitekto batzuen ideiak ikusiz eta aurkezten diren proiektu guztien artean egokiena AUKERATUZ. Azken batean, Mendaroko herria izan beharko litzateke bere Udaletxea nolakoa izatea nahi duen erabaki beharko lukeena.

4- Zer egin dezakegu 4.000 m<sup>2</sup>tan? Artikulu honetan gai honi buruz jasotzen den ideia guztiz lekuz kanpo dago. Orain azalduko dugu zergatik. Txaletak egiteko aurreproiektua onartu zenetik, bagenekien 4.000m<sup>2</sup> izango zirela gune berdeentzat eta aisialdiarentzat, LEGEAK HORRELA DIOLAKO. Hortaz, argi dago, artikulu hori instalakuntzarako eta aisialdirako erabilizena, ez dauka ez buru eta ez hankarik, denok aurrez bagenekielako horretarako erabiliko zirela. MTik uste du, lurzoru horretan ezer eraikitzen hasi aurretik, zenbait puntu argitu behar direla; batetik, mendarotarrak zer eskakizun dituzten, eta bestetik, eskakizun horiek zer kostu duten, eta biak kontuan hartuta, zer egin daitekeen.

Mendaroko  
Taldea Independentea (M.T.I.)

BARRENe-ko ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enantzikizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikaluta egon behar dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia.

## GALDERAK

• Basarte kaleko biztanle bat Udalak bere auzoari eskaintzen dion atentzio kaskarrak kexu da eta galdera hauek egin nahi dizkio Hirigintzako zinegotziari: "zer gertatzen da gure auzoko farolekin, gaur bai eta bihar ez pizteko? Ba al dago zakarrontzirik ipintzeko asmorik? Ba al dago etxe inguruko zikinkeriak txukuntzeko asmorik?". Basarte auzoan oraindik jende gutxi bizi delako bada atentzio faltaren arrazoia, Udalari gogorarazi nahi lioke herritar hauek zergak oso-oso ordaintzen dituztela.

Udaleko Hirigintza **Sai-**

lera jo dugu eta honakoa izan da eman diguten erantzuna: "Oraindik **auzo berri horretako obrak antaitu gabe daudenez, urbanizazioa bukatu arte Elgoibar Inmobiliaria konstruktoreak du erantzukizuna. Obra guztiak bukatu arte eta proiektua onartzen bada bakarrik egin dezake zerbait Udalak.**

Inmobiliariako ardura-dunek esan digutenez, "eguraldi ona egiteko zain gaude obrak bukatzeko. Ondoren, Udalak izango du zakarrontziak ipintzeko ardura. Parkea dagoen tokian jarriko ditu".

## TXALOAK

• Gazte batek deitu digu honako txalo hau argitaratzeko: "Gillermo **Garate alkatea txalotu nahi dut 'Euskal Presoak Euskai Herrira' manifestaziora azaldu zelako.** PNVk parte ez hartzea erabaki zuen arren, PNVko alkatea eta zinegotziren bat manifestazioan izan ziren eta hau pozgarria dela uste dut. Gauzak benetan aldatzen ari diren seinalea, akaso?".

• Emakume batek **Haizea Emakume Taldeak 'Emakumearen Nazioarteko Eguna' ren dela-eta antolatutako ekitaldia txalotu nahi du.** "Herriko emakume askok hartu zuten parte eta oso giro polita sortu zen. Oso gustura pasatu genuen larunbat gaua".



• **Artetxe kaleko bizilagun batek Udaleko Hirigintza Saila txalotu nahi du jarleku berriak jarri dituztelako.** "Lehen ere bazeuden batzuk baina zahartzen hasita zeuden eta ilusio handia egin dit gure eskariari erantzun diotela ikusteak".

## **BALLY ESAN?**



### **Asier Zengotita** **Euskal Herritarrok** **tal deko kidea**

Atzo, martxoak 11, eratu zen ofizialki **Euskal Herritarrok** (EH) taldea Elgoibarren. Zazpi-zortzi lagunek osatutako talde batek hartu du parte eratze prozesuan, eta Elgoibarko EHren antolamendua eta funtzionamendua zehaztea dira, besteak beste, berehalako zereginak. Talde berriari buruzko hainbat xehetasun argitzeko deitu diogu talde eragilean aritu den **Asier Zengotitari.**

**-Euskal Herritarrok (EH) zer eta zertarako den aztertu zenuten atzo. Zer da EH? Zertarako da?** Euskal Herritarrok, euskal gizarteko gizon eta emakume aurrerakoioek eta abertzaleok, elkarlanerako dugun topagunea da. Bertan, sentsibilitate askok bat egiten dute. Hori bai, Euskal Herriak irtenbide demokratikoa izan behar duela denok garbi dugu. E.H.ren helburua Euskal Herriak hasi duen nazio eraikuntza prozesua, Elgoibarren ere gauzatzea da. Gure ustetan, Euskal Herria, herriz herri eta auzoz auzo eraiki behar da.

**- Zein dira HBren eta EHren arteko diferentziak?** Diferentzia garrantzitsuena helburu estrategikoa izan daiteke. Herri Batasunaren helburu garrantzitsuena Euskal Herri independentea eta sozialista eraikitzea da. Helburu hauekin bat ez etorrita ere, Euskal Herriko irtenbide demokratikoaren eta eraikuntza nazionalaren alde dagoen edonork du tokia eta zeresana Euskal Herritarrok-en.

**- HB desagertu egingo al da Elgoibarko marko politikotik?** Herri Batasunaren barruan aurrikusita dago eztabaidatu beharra dagoela. B atetik, hauteskundeetan Euskal Herritarrok da Herri Batasunaren tokian aurkeztu behar den indarra. Bestetik, Euskal Herritarrok taldetik sor daitekeen batasun berria nola gauzatu eta E.H.ren barruan nola lan egin behar dugun eztabaidatu behar da. Dena den, hau udal hauteskundeetan osten egingo da.

**- EH lanean hasten denean, zertan igarriko dugu elgoibartarrok?** Topagune zabala izanik, indar anitz eta plural batean bihurtzen gaitu, baina ez da itxia. Honek, inoiz baino ikuspegi handiagoa eta zabalagoa eman digu. Sentsibilitate ezberdinen iritziak, kexak, zalantzak... jasotzeko aukera gehiago ematen dizkigu. Hori, elgoibartar gehiengo baten onerako izango da. Azken finean indar berriak aterako dira, bai elgoibartarren aldeko lanean, baita nazio askatasunerako bidean ere.

SIGMA eta SAN PEDRO

# Herri izaerr auzoak

*Sigma eta San Pedro auzoetara atzoko eta gaurko bizimoduaren berri izateko asmoz jo dugu. Herriko bl muturretan daude bi auzo hauek, erdigunetik nabiko urrun. Bi auzoek dute antzeko ezaugarria: bi lantegi erraldoiren itzalean hazitako auzoak direla, alegia. San Pedro eta Sigma bezalako lantegi handlek, Francoren garaian indarrean zegoen lege baten arabera, langileentzako etxebizitzak eta beste zerbitzu batzuk jartzera behartuak zeuden. Ondorioz, herri txiki independenteak modukoak izan dira urteetan. Bizimodu horrek izaera berezia eman die auzotarrei eta fasnalia handi bat osatzen dute. Krisi ekonomikoaren ondorioz lantegiak itxi zirenetik asko aldatu dira gauzak. Dena den, auzotarrek oraindik dute lotura berezi hori. Sigman eta San Pedron bizitzaren abantailen eta desabantailen inguruan hitz egin dugu bi auzo hauetako bizilagunekin.*



## MAKO ETKEAK

Si ako auzotarrek elkarre bat dute. Bertan itu dugu Jesus Lariz, elkarteko lehendakaria, lasai asko karta jokoan. Sigmako langilea izandakoa da eta duela 40 urte ingurutik bizi da bertako etxeetan. Enpresako etxeen sorrerari buruz Jesusek esan digunez, "Francoren garaiko lege baten arabera, langile kopuru zehatz batetik gorako lantoki guztiak behartuta zeuden langileentzako etxeak eraikitza. Beste askok bezala, egunkariko iragarki batean ikusi nuen Sigma lantegiak lanpostua eta etxebizitza eskaintzen zituela. Aukera tentagarria zen eta bizitzeko toki egokia iruditu zitzaidan". Etxeak 1962 bueltan eraiki zituzten eta urte bat berandua-go langileen semeentzako eskola eta eliza eraiki ziren. Elkarrea, berriz, 1964 inguruan sortu zuten langileen aisialdirako. Aingeru Berazarri Sigmako gerentearen ekimenez sortu zen Elkarrea.

## EKONOMATOA

Sigmako lantegiko zuzendaritzak denda sortu zuen, ekonomatua. Langileek bakarrik zuten supermerkatu honetan elikagaiak eta jantziak erosteko eskubidea. "Sigmako lantegiak maioristei eskari handiak eginez produktuen prezioak asko jaistea lortzen zuen. Langileei bizimodu erraztea zen sistema honen helburu bakarra, etekinik ez baitzuen ematen". Sigmakoek

gogoratzen dutenez, "hilabete osoko egunak agertzen ziren txartel bat ematen ziguten langile bakoitzari. Txartelak egun bakoitzeko erosketak bakarrik egiteko eskubidea ematen zigen. Prezio merkeez ez aprobetxatzeko sortu ziren txartelok". Henira jaitsi beharrik ez izate-



*Sigmako gazte kuadrila batek euren elkarre propioa sortu dute eta legalizatzeo asmotan dabilta.*

ko eraiki ziren eskola, ekonornatoa, eliza, frontoia eta elkarte. Herri txiki bat modu-koa zen Sigma, bertakoen iritziz, "familia edo kuadrila handi bat izan da auzoa". Sigmako jaiak Santiagotan, uztailean, izaten ziren. Besteak beste, berbenak, txaranga, asto lasterketak eta Pilota Txapelketak antolatzen zituzten. Gaur egun inor ez dago jaiak antolatzeko prest. Ell<artekoek antolatzen duten Pilota Txapelketa bakarrik mantendu da.

**ELKARTEA, AUZOTARREN BILGUNEA**


Elkarteko 'gaztetxea' deitzen dioten gelan aurkitu genituen bazkide gazteenak. Herritik urrun bizitzeak dituen desabantailaz galdetu genienean, oinez jaisteko urrun geratzen dela esan ziguten. Autoz ibiltzeak beste arazo batzuk sortarazten ditu. Esan digutenez, "auzotik irten eta sartzeko semaforo bat jarri beharko luke, sustoak baino gehiago izan baititugu". Gazteak bildu eta elkarrekin egoteko leku bakarra Elkartea izan da urte askotan. "El-

**"Elkartean adin guztietako jendearekin hitz egiteko eta parrandan ibiltzeko aukera dago".**

kartean 40 urteko jendearekin edo jubilatuekin hitz egiteko aukera dugu edo gu baino zaharragoak direnekin parrandan ibiltzeko. Kanean, aldiz, kuadrilak adinaren arabera sortzen dira. Hemen, beniz, denok eza-gutzen dugu elkar". Dena den, duela 8 urte eskola zaharreko gelak berri eta egokitu zituzten auzoko 4-5 kuadrilek. Elkarteen erregistroan izena emateko asmotan dabil-tza 'Txiringo' kuadrilakoak. "Elkartea sortuz gero, dirutaguntzak jasotzeko eskubi-dea dago".

**S PEDROKO LAZARTEA**

S Pedroko etxeen kasua Sigmaren antzekoa da. 1956-57an San Pedroko fundizio eta laminazio lantegiak ibai ondoan dauden etxebizitzak eraiki zituen. Geroago, 1962an gutxi gorabehera, errepideaz bestaldeko etxeak eraiki zituzten. Ordura arte 3 etxebizitza bakarrik zeuden auzoan: 'Melitongua' izeneko etxea, Olazarreta ('Casablanca' bezala ezagunagoa) eta 'Kamineruen' etxea. 1956 urtean, bariantea egin zuten arte, errepide nagusia San Pedroko etxeen artean pasatzen zen. Aldaketa honek lasaitasun han-



Fundizioaren inguruan sortutako auzoa da San Pedro.

dia ekarri zion auzoari, nahiz eta gaur beste autorik eta jenderik ez egon. Langile auzoa zen San Pedro eta auzoa inguratzen zuten lantegi ugariaren inguruan egiten zen bizi-modua. Lagun eta batez ere San Pedroko lantegiak ziren bizimoduaren erritmoa markatzen zutenak. Maki Intxausti, auzoko Inlozu lantegiko arduraduna izan zen urte askoan eta industria astunaren urrezko garaiak oso gertutik ezagutu zituen, Inñakik esan digunez, "San Pedroko fabrika 400 langilek baino gehiagok egiten zuten lan hiru errelebotan. Lanetik irtean 'Bodegon Maza' izaten zen guztien biltokia". Gogoan duenez, "ikustekoa izaten zen eskantak eta taberna langilez leporaino beteta ikustea". San Pedroko langileek ekonornatoan erosten zituzten elikagaiak eta erropak. 'Almazena' deitzen zioten eta eragozpen bakarra San Frantzisko kaleraino jaitsi behana zen, gaur egun Urkiola taberna dagoen tokian baitzegoen. Leruneko futbol zelaia horren gertu edukita futbolzale asko zeuden auzoan. "San Pedroko lantegiak bere ekipoa zuen, eta lantegian 'fleje' izeneko piezak egiten zituztenez, izen hori jarri zioten taldeari; geroago 'Elgoibar Txiki' izena izan zuen". Auzotarren beste zaletasun bat ibaian bainatzea zela aipatu diguk, "Aldeibar izeneko ur geldotan bainatzen ziren gazteak".

**AUZO LASAIA**  
Gaur egun asko aldatu dira gauzak San Pedron. Lantegia itxi zenetik kaletan'ak etorri dira eta berta-

koak, diru piska bat aurreztutakoan, erosotasunaren bila erdigunera joan dira. Jaiak antolatzeari ere utzi zitzaion inork ez zuelako ardura hori hartu nahi.

Bar Pepe n bilizen da auzoko jendea, "kar-

**"Lantegia itxi zenetik kaleko jendea etorri da eta bertakoak erosotasunaren bila erdigunera joan dira".**

tetan jokatzera edo futbol partiduak ikustera joaten dira tabernara. "Henira erosketak egitera bakarrik jaisten gara. Gainontzean oso gustura eta lasai bizi gara". Dena den nahiko bazterturik sentitzen direla aipatu digute, "politikoak hauteskunde garaian bakarrik oroitzen dira gutaz. Telefono kabinarik ere ez dugu eta ibai inguruak piska bat txukuntzea ez legoke gaizki".

Oro har, Sigmako eta San Pedroko bizilagunak oso identifikatuta sentitzen dira euren auzoarekin. San Pedrokoak edo Sigmakoak direla esaten dutenean, burua tente eta harro eta ozen esaten dute.



Gaur egun 'Bar Pepe' da auzotarren biltokia.

HEREM TRAFIE DEIVIZATEA  
AZTERIFZEY UIA 20ALA

# Autoa gehiegi erabiltzen al dugu?



**YOLANDA RODELGO**  
23 urte, delineatzailea

Bai. Nik autoa daukat eta toki guztietara joateko erabiltzen dut. Erosketak egitera ere askotan autoan joaten naiz. Gainera autoa beharrezkoa dela iruditzen zait.



**XABIER GALDOS**  
65 urte, jubilatua

Batzuek edozein gauzetarako etaraten dabe kotxia. Nik gutxi ibiltzen dot. Domeketan mendi aldera juten naiz eta udan Debara, plaiara. Baina herrixan batere ez.



**ANGELO IRIONDO**  
63 urte, aurrejubilatua

Bai, baina nik garajia urrian ez dakatenez, autua kanpora juteko bakanik erabiltzen dot. Gainera, herrixak ez du erreztasunik ematen kotxian batera eta bestera ibiltzeko.



**ASCENSION MORENO**  
52 urte, etxeoandrea

Bai, askotan oinez joan daitekeen tokietara joateko autoa hartzen du jendeak. Etxekoek Olason lan egiten dute eta autoan joaten dira. Ni oinez joaten naiz normalean.



**ANTONIO PEREZ**  
40 urte, trokelista

Bai. Lanera joateko eta herrian bertan mugitzeko autoa hartzen dugu. Hala ere, piskanaka gutxiago erabiltzen joango garela uste dut.



**ENCARNI MIGALES**  
30 urte, dendaria

Gehixegi erabiltzen dala uste dot. Nik herrixan lana itxen dotenez gitxi ibiltzen dot. Jendiak kotxiakin ateraino juteko ohituria daka eta gero aparatzeko arazuak egoten dia.

Peciro Muguruza, 5  
Tel: 943 74 08 06  
20870 E LGO1 BAR

**Kontabilitate Lan**

**URKIDI**

**- Fiskal AHOLKULARITZA**

**ITT ERCOS ASEGURUAK**

Kalamua, 12  
ELGOBAR  
Tel-Fax:  
943 74 18 91


**CHERKI 1GOGA1LUAK**

1 Urrutira deitu gabe bertakook segituan konponduko dizugu igogailua

943 20 35 15 • 8 ABERIAK 943 20 31 25  
Bista Eder, 11 (sotanoa) • 20600 EIBAR



# ISPILUARI DEGIRA



LUIS ALVARO

p•f?'RE/i•t 0-.<41i17

PILAR arrandegikoa

- **Arrainak inozoak al dira pikatzen dutenean?**  
Derrigorrez pikatu behar dute. Arrantza arte bat da eta ez daukate beste aukerarik.
- **Zuk askotan pikatu al duzu?** Bai, gehiegitan.
- **Eta zer sentitzen da amuak harrapatzen zaituenean?**  
Askotan amonua, besteetan inpotentzia, mina... denetik.
- **Kiskila bat bazina, noren sarean erortzea gustatuko litzaizuke?** Emakume eder baten sarean.
- **Esan al dizute sekula 'olagarro bat' zarela?**  
Bai, askotan.
- **Zein egoeratan gustatuko litzaizuke aingira baten moduan ihes egitea?** Momentu latz guztietan.
- **Noiz harrapatu duzu azkenengo 'legatza'?**  
Duela pare bat urte.
- **Noiz arte iraungo du "bakalao" musikak?** Ni nahiko zahartuta nago musika hori entzuteko, ez zait gustatzen. Hala ere, badirudi jendeari gustatzen zaiola eta luze iraungo du.
- **Zure bizitzan zerk dauka angula kilo batek besteko balioa?** Osasunak.
- **Arrandegian daukazu txipiroi tinta guztia petroleoa balitz, zer egingo zenuke?**  
Dudarik gabe, saldu eta aberastu.
- **Ezagutzen al duzu sirena baten antza duen emakumerik?** Ez, sirenak ez dira existitzen.
- **Ikusi al dituzu Donostiako akuariumeko marrazoak?**  
Ez.  
Marrazo asko al dabil zure inguruan?  
Bai, gehiegi daudela uste dut.
- **Nor gonbidatuko zenuke "mariskada" eder bat jatera?** Nire kuadrila.
- **Bezeroak beti dauka arrazoia?**  
Gehienetan bai, baina ez beti.
- **Lanbidez aldatzekotan, zer izan nahi zenuke?**  
Kargu altuko exekutiboa.
- **Arrandegian entzun duzun azkenengo "txisimea"?**  
Asko entzuten dira, baina ezin dira kontatu. Etika profesional apur bat eduki behar da; entzun eta isildu.
- **Zein arrain ez zenuke sekula jango?**  
Denak gustatzen zaizkit.
- **Arrain bat izango bazina, zein itsasotan bizitzea gustatuko litzaizuke?** Itsaso Barean.
- **Gogoko al dituzu Kovacevic-ek sartzen dituen "txi-txarroak"?** Bai noski!
- **Lehendakari berria bazina, zein mezu botako zenuke itsasora botila batean?**  
Behingoz bakea lortu behar dela esango nuke.

Ainhoa Andonegi

## 4culic6't uri uts

Enpanadak

Baserriko ogia

Enbutidoak

Bolleria

Sarartolome, 6 / B. Ezenarro, 1 w 943 74 3392



# KAROBI 122L

• Sigmako

terrenoen

salmentari buruzko salaketa egin du HBk buletin hatean

Elgoibarko HBk herriko etxeetara helarazi duen buletinean, Sigmako lur-  
ren erosketa salatu du. HBko kideen arabera, Sigmako lurra esku publikoetatik enpresa pribatu batera pasatu dira. Beraien ustez, Gillerimo Garate alkateak ez du Sigma lur publiko izateko aposturik egin eta Albitxuriko proiektua bultzatu du. Bestalde, Retegi Industria Sailburuaren jarrera ere salatu dute. "Itxurak egin arren, honek ere interes pribatuaren alde jo du azkenean". Aurreko legegintzaldian Elgoibarko alkatea izan zen Jose Ignazio Elkorro-Iribe ere aipatzen dute buletin honetan. HBko ordezkariak, honi ere, Sigmako lurra publiko izan zitezkeen borrokatu ez izana leporatzen diote.

**Urruzuno proiektua gelditu egin dute**  
**Eusko Tren karril berria egiteko aukera aztertzen ari da**

Urruzunoko lurretan babes ofizialeko etxeak egiteko asmoa dago, baina oraingoz obrak gelditu egin dituzte. Duela gutxi hasi zituzten eraikuntza lanak baina momentuko arazoak direla medio, ez dute obrek aurrera jarraituko. Obrak zergatik geratu dituzten jakin nahian Udaleko Hiri-gintza Saileko Jose Mari Orueagasti zinegotziarengana jo dugu. Honek adierazi duenez, "gai honetan Eusko Jaurlaritzako bi sail daude inplikaturik: Eusko Tren eta Ingarugiro eta Etxebizitza Saila. Eusko Trenek Urruzunoko lurretan karril berri bat egiteko asmoa dauka eta horretarako, ikerketak egiten ari dira". Beraz, garbi utzi nahi izan dute ez dela inolako salaketarik egon eta arrazoi hau izan dela obrak gelditu dituenak. Oraindik, obrak lehenengo fasean baino ez daude. Zati honetan eta bigarrenen azpiegitura eta pabimentazioa egiteko asmoa dute. Argiak eta mobiliario urbanoa ere jarriko dituzte. Ondoren, trenbide azpiko pasoa aldatuko dute. Obra hauek urte bukaeran egingo dituzte. Biganen fasea, berriaz, etxeak eraiki ostean hasiko da.



Babes ofizialeko etxeetako obren lehen fasea urte amaierarako amaitzeko asmoa dute.

Hasierako obrak Altuna y Uria Elkarte Anonimoak egingo ditu eta 7 hilabete eta

erdi arituko dira horretan. Eraikuntza lan hauek 241.366.520 pta.ko aurrekontua daukate.

Ikastolaren eta Karkizaoko etxeen artean 8 etxebizitza bloke egingo dituzte, guztira 165 etxebizitza izango dira. Etxe hauen batez besteko prezioa 7 eta 11 milioi bitartekoa da. Etxeen eraikuntzarekin batera gurua txukuntzeko asmoa daukate. Gainera, Babes Otizialeko etxeak eraikiko diren lurretan 160 auto aparkatzeko lekua egongo da. Obrak oraingoz geratuta daude, beraz, hasierako epeak ez dira bere horretan mantenduko, eta oraingoz ez dakigu berriz noiz ekingo dioten eraikuntza lanari.

# UBALEKUAK

**ZEGAMA7—Th**  
L.Hko 5. eta 6. mailakoentzat

**ORION**  
LHko 7. mailako t)

Segura herria ezagutu.  
- Zerain herriko kartzela eta errota bisitatu.  
Mendiko bizikletarekin irteerak...

- Orio eta bere inguruak ezagutu  
Zarautzera eta Donostiara irteerak...

**IRTEERA:**

Apirilaren 7an (asteazkena),  
goizek 9 10:30etan Plaza Handian

**PREZIOA:**  
7.000 pta.

**ITZULERA:**

ThApIrilaren 10ean (larlartnabata)  
11e0e.ndiko 13:00etan Plaza Handian

**IZEN EMATEA**

**martxoaren 18a**  
baino lehenago:  
**ELGOIBARKO IZARRA**  
Ubitarte 4, behea  
Informazio gehiago:  
943 74 16 26  
Ma Jesus (goizez)

Antolatzailea:  
Elgoibarko Izarrak  
Atxutxiarnaika B. T.



Laguntzaileak:  
Elgoibarko Udala  
Eusko Jaurlaritza





## Elgoibarko emakumeen ekitaldiarekin ospatu zuten Haizea Taldekoek Martmaren 8a

Haizea Taldeak antolatuta herriko emakumeen ekitaldia izan zen larunbat gauean Kultur Etxeko sotoan. Bertan, kafea hartzeko aitzakian bildu ziren emakumeek tnusikaz gozatzeo aukera izan zuten. Hasieran, Oihane eta Onintza trikitilariak zenbait pieza eskaini zituzten. Ondoren, Irati Agintzaldegik pare bat bertso sorta abestu zituen. Edume Lasak, Mari Juli Arregiren gitarren laguntzaz, Jasone Osororen ipuin bat errezitatu zuen. Gero, Nathaliak zenbait kantu abestu zituen. Ekitaldia amairzeko, trikitilariak jardun zuten berriz eta jendeak dantza egiteko aprobetxatu zuen. Beraz, oso giro onean pasatu zuten Emakume Langilearen Eguna.



## Giro alala izan zen Kimetz Elkartek antolatutako IV. "Barrikotean"

Larunbat gauean, Kimetz Elkartean 90 lagun bildu ziren IV. "Barrikotea"n parte hartzeko. Sagardotegi giroan, makailo tortila, txuleta, intxaurrak, gazta, kafea eta kopa hartzeko aukera izan zuten. Gainera, Eusebio Lasarte bertsolari eta txiste kontalari oriotarrak umorea jarri zion afariari. Bertan izan zirenek euskal kantuak abestuz bukatu zuten jaia eta izandako arrakasta ikusita, datorren urtean ere "Barrikotea" antolatuko dute.

## 250 lagun elkartu ziren euskal presoen euskalerriralea eskatzeko

Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, 250 lagun inguru elkartu zen larunbat eguerdian, "Euskal Presoak Euskal Herri- ra" lemapean egindako manifestazioan. EA, IU eta PNV alderdiek deitu zuten manifestazio isila. Plaza Handian hasi eta Madalaraino joan ziren euripean eta henia zeharkatu ostean Plazan amaitu zen manifestazioa. Antolatzaileek balorazio positiboa egin dute, ideologia askotako jendea joan baitzen manifestaziora.




## Giro polita izan zen "Tribuaren hitz galduar ikuskizunean"

40 lagun inguru elkartu ziren joan den ostiralean Mikel Markez kantariaren eta Pako Aristi poeta eta idazlearen emanaldian. Konika Kulturalaren barruan antolatu zen eta esan ditugenez, giro polita sortu zen. *Trihuaren hitz galduak* ikuskizunak nrusika eta hitza uztartzen ditu, eta hitzen soneraz tzo dira, besteak beste. Bertara hurbildu zirenek, kantari orrettuaren eta poeta urrestildarraren ahotsez gozatzeaz gain, Jasone Osoro idazle elgoibartarrak irakurritako ipuina entzuteko parada ere izan zuten. Bestalde, AEKko kideek gogorazi zuten, ordu aldaketa dela-eta, Korrika Elgoibartik gaueko 21:00etan beharrean 20:00ak inguruan pasako dela.



## MEZA

1999ko otsailaren 27an, 25 urte zituela Gasteizen hil zen SILVIA MENOR TEJEROren oroimenez, MEZA izango da Madalan larunbatean, hilak 13, arratsaldeko 20:30ean. joaten zaretenoi eskerrak aldeztu aurretik.



• **San Pedro bailarak edateko ura izango du Ipintzako depositari esker**

Ipintzako lunretan eraikitze-ko asmoa duten depositoak, San Pedroko auzokideek edateko urarekin dituzten arazoak konponduko ditu.

Ur Partzuergoak finantzatuko duen proiektuko lehen fasearen **kostua 40 milioi** pezetakoa da. Obrak Donostiako *Gailur* enpresak egingo ditu eta hitza betez gero martxoan hasi eta bost hilabeteren buruan amaituko dituzte.

Gaur egun ez dago San Pedro bailaran horniketa sarerik eta ondorioz, beraien iturburuetatik hartu behar izaten dute ura. Ur honek ez du edan aurretik inongo kontrolik pasatzen eta horrek arazoak ekar ditzake. Arazo hau konportzeko asmoz, Udala eta Ur Partzuergo lanean hasi ziren. San Pedroko bailara lekua altuan dagoenez, zaila zen ura bertara bideratzea. Honela, Partzuergoak arazoari irtenbide bat bilatu zion. Signia auzoko sare orokorretik Ipintza baserriko lurretan dagoen depositora bonbeatuko dute ura. Handik, auzoko baserri guztietara ura bideratzeko sarea eratuko dute. Hasieran, sarea San Pedroko ermita ingurura iritsiko da eta ondoren, beste baserrietara zabalduko da. Azken aldian eraiki diren etxebizitzetara eta Kalamua azpiko baserrietara ere iritsiko da ura.

Proiektuaren bigarren faseko gastuak Udalak eta baserrietako bizilagunek ordainduko dituzte eta 30 milioiko aurrekontua dauka. Honela, baserrianrek edateko ura izango dute, eta ez dituzte izango orain arte urarekin zituzten arazoak.

## Gillermo Garate alkateak gogor erantzun dio HBk banatutako buletinari

"Lotsagabekeria politikoaren marka gainditu dute", dio alkateak

Garate alkate-1-1 ak idatzi bat helarazi digu duela zenbait egun HBk buzoneatutako buletinari erantzunez. Idatzia Sigmaka adjudikazioari buruzkoa da eta HBkoek gogor kritikatzan dituzte Udala, alkatea bera eta beste zenbait pertsona. Alkateak, 'HB: inperioa kontraerasoan' izenburupean, ondokoa esaten du HBko zinegotziei buruz: "Isiltasun labur baten ondoren, inperioa (Elgoibarko HBko ordezkarietz ari naiz) berriz, erasoan. Egia esan, Elgoibarko hiru sagutxoek eraso da: Mendizabal, Hernando eta Marcos jaunek, orain dela gutxi Sigmari buruz buzoneatutako panfletoaren bidez lotsagabekeria politikoaren markak gainditu dituzte.

Zeresan gutxi dago libeIo honetaz. Egia esan, ez da gauza berria. Orain arte, prebarikatzaitzat, EAJren finantziatzailetzat, xahutzaitzat, promotoreen txo-



Guillermo Garate, Elgoibarko alkatea.

txongilotzat eta orain, azkenik, espekulatzaitzat jo naute pertsona hauek. Gehiegi pertsona bakarra-entzat, ez duzue uste? Izan ere, egia esan behar dut, nire egunak 24 ordukoak bakarrik dia, eta, denbora gehiena Elgoibarko Udalean ematen dut.

Edozein modutan, eraso onartezin honek bi gauza dakarzkiz burura: lehenengo eta behin, argi dago alkateak eta Udalak funtzionatzen dugula, edozein bitarteko erabiliz guri eraso egiten saiatzen direla

ikusirik. Bigarrenik, eta, sagutxoek irudira itzuliz, HBko ordezkariak buru handia, adimen gutxi eta bat ere oroimenik ez dute. Gezur hauek guztiek HBri lasaitasun apur bat eskatzera bultzatzen naute: oraindik ere asko falta da hauteskundeetarako, eta horrelako oldar bortitzek kalte handia egin diezaiokete; Udalean 95eko ekainetik seko kolpe zorririk jo gabe dabilta eta".

## PPko Juan Carlos Abian zinegotziak alkatearen kritikW erantzun die

Tuan Carlos Abian PPko zinegotziak, otsai- J laren 26ko plenoan alkateak bere aurka esandakoei erantzunez, BARREN astekarira idatzi bat bidali du. Zera dio lehendabizi: "ez diet erantzun nahi plenoan nire kontra esandako irainei, ez da nire estiloa eta ez naiz joko horretan sartuko". Bestalde, alkateak Elgoibanen izen ona zikindu duela leporatu zion Abiani eta PPko zinegotziak hertiaren izena goraiatu izan duela adierazi du. "Autonotni Erkidegotik kanpo egon naizenetan Elgoibari buruz beti ongi hitz egin dut. Izan ere, gutxi batzuegatik ezin daiteke herri bat epaitu". Guillermo Garate alkateak, Ertzantzari babesa eskatuz egindako deiak gehiegizkoak izan direla esan zion. Honi buruz Abianek esaten du, "Enzantzaren arazoaren inguman ez dut eztabaidarik sortu nahi, Jaime Mayor Oreja Barne arazoetarako ministroak eta Javier Bolza Barne Sailburuak PPko zinegotzien autoprotek-

zioaren inguruan egindako akordioa baita". Bestalde, alkateak Arartekoari apelazioa bidali izana leporatu zion Abiani. PPko zinegotziak adierazten du ez diola Arartekoari inongo apelaziorik egin. "Apelazioa Autonomi Erkidegoko goi kargu batek luzatu zion Arartekoari. Apelazioaren zergatia pleno batean nire aurka idatzi eta zabalduko panfleto bat izan zen". Abianek bere geroari buruz ere hitz egin du eskutitzean, "nire etorkizuna ez dut nik erabakiko, ezta nire alderdiak ere, nire eguneroko lanak baizik". Garatek Elgoibartik alde egiteko gonbitea luzatu zion plenoan eta honi erantzunez dio, "Elgoibartik joan behar naizen ala ez erabaki behar dutenak elgoibartarrak dim, ez alkatea, horretarako baitago demokrazia". Alkateari zuzenean esaten dio, "governatu eta jarrai ezazu gobemazten Garate jauna, horretarako hautatu zaituzte-eta Gipuzkoako herri eder honetako alkate".

er

dr

# BARREN

LHko eta DBHko IKASLEEKIN EGINDAKO 51. GEHIGARRIA



**N**egu aldean eskia kirol onenatarikoa da. Hemen, Pilar ikastetxeko ikasleak agertzen dira tramankulu guztiekin, nekatuta baina pozik. Aurten ere DBH 3 eta 4. mailako ikasleek ekintza zoragarri hau errepikatuko dute, Bueltan kontatuko digute elurretan nola ibili diren.

## 7xed.rea,

Maisuak ikasleari:

- Ez da egia izango ez dakizula Kolonek Amerika aurkitu zuenik!
- Pentsa, galduta zegoenik ere ez nekien!



## Jakitunen eskutik

### Gurasoak telebistaren aurrean

**G**ure gizartean komunikazio sistemarik eraginkorrenetarikoa irudia da: zinea, argazkia, telebista, bideoa... Irudien bidez mezu asko iristen zaizkigu eta hauek gure jokabideak baldintzatzen dituzte. Seme-alabak irudien munduan sartu ahal izateko hezi behar dira. Baina, aurrez, gurasoek mundu hori ezagutu behar dute eta nor bere irizpideen arabera berau aztertzeke gai izan behar dira.


Haurrek, jasotzen duten heziketaren arabera, telebista informaziorako edo edo aisialdirako erabiliko dute. Bestaide, telebista pizteko eta itzaltzeko irizpideak ere ezberdinak dira. Telebista, berez ez da kaltegarria. Gaztetxoaren onurarako ere izan daiteke. Ongi erabiliz gero, gaztetxoek gizarteko, kulturaren alorreko eta aisialdiko gauzak ikas ditzaten balio dezake.

Gaztetxoek, eskola adinean dauden bitartean, 70 mila ordu inguru pasa ohi dituzte telebistaren aurrean. Hau da, eskolan beste eta gurasoekin baino gutxiago. Horren arrazoiak, besteak beste, berdegunerik eza, gurasoek seme-alabekin egoteko daukaten denbora falta eta etxebizitza txikiak dira.

Heziketaren alorrean oso garrantzitsua da familiak betetzen duen papera. Seme-alabei telebista ikusten irakastea, jaten, irakurtzen edo idazten irakastea bezain garrantzitsua da. Baina medio moderno bat denez, gurasoek ez dute honen inguruko heziketarik jaso, beraz, ez duakate garbi beraien haurrak ar[õ] honetan nola hezi behar dituzten.

Telebistak, gurasoen azalpenak osatu beharrean, sarritan ordezkatu egiten ditu. Beraz, umeez jasotzen duten informazioa ulertzeko gurasoen laguntza behar dute. Telebista ikusi aurretik testuingurua ezagutzen badute, horren arabera interpretatuko dute ikusitakoa.

Honela, bada, gurasoek telebistaren aurrean honako pautak hauek jarraitu beharko lituzkete: haurrek ez dute sekula telebista bakarrik ikusi behar. Gurasoek seme-alabei programa egokiak aukeratzen lagundu behar diete. Umeez telebista aurrean pasatzen duten denbora zehaztu behar dute nagusiek. Gaztetxoek, telebista era aktibo batean ikus dezaten saiatu behar dira gurasoak. Seme-alabekin telebistan ikusitakoaz hitz egitea da horretarako modurik egokiena.



MIKEL USABIAGA.  
Psikologoa eta  
Mondragon  
Unibertsitateko irakaslea.

## Zer kitzi daukazu *teleicata& isaft* mei buruz?



"Oso alaiak eta dibertigarriak dira programetan, baina beraien bizitzan gu bezalakoak dira"

ANDER CONDE, 10 urte



"U4t4 #1^#, tatiti4 IMb44 e4414 eu kat U44,41e  
uayt014,10.4;.4 otitu. loa", h,14".

ASIER ASTARLOA, 12 urte



"N44 4440, 14/itus daz e3.4h4 444,4 e4e41e4. Ue. 7044,044 A4,  
14./~Ty,zitz /44. O".

BORJA MALLO, 9 urte



**USIZUFTA**  
**13 urte**

## Gaide debalde

- . Ba al daukazu maskotarik?
- . Zenbat ordu ematen dituzu telebista aurrean?
- . Nori egingo zenioke elkarrizketa bat?
- . Zerk beldurtzen zaitu?
- . Zein opari jaso nahi zenuke?
- . Zeini kontatzen dizkiozu sekretuak?
- . Zein desio eskatuko zenioke Aladinoren inparari?
- . Urteko egunik politena?



**AILEA**  
**GALC1A**  
**urte**

- 1- Ez, ez daukat maskotarik.
- 2- Egunian bi ordu inguru.
- 3- Joseba Etxeberriari,
- 4- Gerrek ematen diate bildurra.
- 5- Bidaia bat urrutira.
- 6- Lagun on bati.
- 7- Pozik bizitzea, gerrak bukatzea eta oportetarako etxe bat.
- 8- Uda hasten den eguna.

- 1- Ez, eta ez dut inoiz eduki.
- 2- Ez dut telebista asko ikusten.
- 3- Barbiri.
- 4- Otsoak beldurtzen nau.
- 5- Txakur txiki bat.
- 6- Ez daukat sekreturik.
- 7- AIFonbra majikoa, munduan bidaiatzeko.
- 8- Udako egunak dira politenak, hondartzara joaten naizelako.

## Zer da **OU**.....-.....?

### ANIE DEL/A / UKIE



Saltoak, bueltak eta halako gauzak egitea da neretzako dantza.



Zaharrek Jubilatuen Etxean egiten dutena. Jaiak direnean ere, jendeak alaitzeko musika jartzen du dantzan egiteko.



Dantza gorputz guztia mugitzea da.



Deporte bat bezaiakoa da. Musikarekin dantzatzea gustatzen zait. Gorputzarentzako ona da.

### AILEA GALC1A 13 urte






Zure bizitzari erritmoa ematen diona.




Dantza, musikarekin egiten da ipurdia eta gorputza mugituz. Zinta bat ipintzen da dantza egiteko.

ERANTZUNAK: 1- Antonio Banderas, 2- Tebista asko ikusten al duzu? eta 4- Papera, haizea eta azukrea.

Isnli op u!za  
!anz  ozo6-ozoo —

piou !snli u!za  
ouioci  n2!oz  
uazwo uo!6aclJno  
iconnol  za voluoq  
za voLly

puep uazloynd ala  
oloci o.104ain  
ouap za ualsnoti o4a  
o4o9 lgruaz Diep .18Z  
o4a-olap JOZ —



•- pt	+ S
4- la	4- L,
•- 8	4- £
4- i	4- Z'
4- 9	1.- 1'

1113111ZINDUISY



aaip nauguaq ubum uale



•1elopp UGIDSe  
olaisoli o6opia6 ate  
oea!x.in6 uoinziaci  
leoson •Ilz!oz  
uazio4sn6 uosdul!s soi  
ueplag laqueHee Inp  
ueisn! uniaapiospny  
•upienzlog,,

L

S3HD3f11 321001/N

•nosol Tep uen!  
!) .uolaci ualenzloci oupn  
'aiap ualose oielop  
Joyci isnli no!xin6 uppq3  
uaismit eioluao  
ole olog ro6p,i4  
ue9a9 'o)plioN,,

apn z  
YOY1111Y01.15Y  
3NY



CT

niapinG



•,noq nxiadso muosped bp JoN



ift1131115113 zize niosodwoquaa



*Mari Jose San Juan duela 35 urte jaio zen Donostian, baina orain dela bost urte Elgoibarrera etorri zen. Geografia eta Historian Lizentziatua da eta gaur egun Bide-Egin Garantia Sozialeko Moduloetan dihardu lanean. Enpresa honek hezkuntza zerbitzuak eskaintzen ditu eta Mari Jose gozogintza irakasteaz arduratzen da. Heziketa ziklo horietaz hitz egiteko ekarri dugu Mari Jose gure artera.*

# Mari Jose San Juan

## ulkasleak lan mundurako prestatzen ditugu"

— **Nola sortu zen Bide-Egin?**

- Duela bost urte, Ikas-Bat delakoan eskolak ematen nituenean, gaur egun nire lankideak direnak ezagutu nituen. Orduan izan genuen enpresa berri bat eratzeko ideia, eta honela Bide-Egin sortu zen. Gure taldeak hezkuntza zerbitzuak eskaintzen eta gestio-natzen ditu.

— **Zer motatako zerbitzuak eskaintzen dituzue?**

Hezkuntza zerbitzuak eskaintzen dituen enpresa gara, beraz, hauek eskaintzen eta gestionatzen ditugu. Elgoibarren, zenbait erakundek eta kolektibok ikastaroak prestatzeko eskatu ohi digute eta elkarlanean antolatzen ditugu ikastaro hauek.

— **Beste ikasketa mota bat ere eskaintzen duzue.**

- Bai, Garantia Sozialeko Moduloak gestionatzen ditugu. Ikasleak lan mundurako

prestatzen ditugu. Oinarrizko prestakuntzaz gain, tutoretzak eta lan munduko funtsezko ezagutzak ematen dizkiegu. Ondoren, hiru tailer probatzen dituzte. Bata gozogintzakoa da, bestea ostalari-zakoa eta hirugarrena zurgintzakoa. Guztietatik pasatu ostean, hobekien moldatzen diren tailerlean jarraitzen dute ikasturtea amaitu arte.

— **Zein irakaskuntza teknika erabiltzen dituzue?**

- Nik gozogintzako tailerman egiten dut lan. Bertan, taldeak sortzen ditugu eta errezetekin ikasleek postreak egiten dituzte. Nire lana berari egindakoa ikustea eta zuzentzea da. Gure irakaskuntza praktikan oinarritzen da hein handi batean.

- **Zenbat ikasle daukazue orain?**

- Garantia Sozialeko Moduloetan hiru tailer daukagu. Tailer bakoitzean hogeitaz gutxiago daude,

beraz, programan 60 lagunek hartzen dute parte. 16 eta 18 urte bitarteko gazteak dira denak. Araututako irakaskuntza **utzi dute** gehienek eta gure helburua, berriz ikasten hastea eta lan mundura bideratzea da.

— **Zein irteera dituzte hemen ikasi duten gazteek?**

- Batetik, ikasten jarrai dezakete. Hemen landu duten arlo bereko modulo bat egin eta ezagutza handiagoa lortuko lukete. Bestalde, hau bukatzean lanean has daitezke. Egin duten espezialitatearen arabera bide bat edo bestea jorratuko du ikasle bakoitzak. Jatetxe bakoitzean, okindegi batean, aroztegi batean... lan egin dezakete gazteek hemen jasotako ezagutza praktikan jarritz.

- **Ikastaroak non ematen dituzue?**

- Elgoibarren egiten ditugunak gure lokaletan izaten dira, Pedro Muguruzako ikastetxe zaharrean. Baina kanpotik ere eskatu digute ikastaroak antolatzeko. Besteak beste, Eibarko Udalak eskatuta, *Portalea* Kultur Etxean sukaldaritza-ko ikastaroak egin ditugu eta Gasteizko Udalaren programa bati esker etxeko lanei buruzko beste bat. Bertan arlo ugari jorratu dira: iturgintza, elektronikak, zurgintza, sukaldaritza...

- **Aurrera begira zein asmo daukazue?**

- Aurtengatik Gasteizen egin dugunarekin pozik gaude eta antzeko prograrnek jarraitzea gustatuko litzateke. Hala ere, hori Jaurlaritzaren eta Udalen esku dago. Bestalde, Garantia Sozialeko Moduloekin jarraituko dugu, gure helburu nagusia hezkuntza baita.

### EESTEK ESANA

"Langile aparta da. Irakasteko eta ikasteko beti prest dago" BEGOÑA GARATE, lankidea.





**65**

urteko elgoibartar honek 1988ko uztai-lean egin zuen alde Elgoibartik Marbellara (Malaga). Jar-be S.A.L. enpresak ateak itxi eta, bizi-modua aurre-

**Sctigin**

**Bo~enixeia**

ra ateratzeko, familiakoekin hegoalderantz joateko erabakia hartu zuen. Itsasgain' jatetxea ireki zuten, Marbellako hondartzan bertan, eta Euskal Herriko jaki tipikoak prestatzen dituzte. "Jendiari asko gustatzen jakoz makailaua saltsan, piperrak eta horrelak; arrakasta handixa dake". Aspaldian ez da Elgoibarrera etorri, baina aurki bisitaren bat egiteko asmoa duela esan digu. Sabinekin han oso gustura bizi direla esan digu, "egurdixa egon laiken onena da eta Elgoibar faltan bota arren, euskaldun asko inguratzen da jate-txera edo Marbellara oporrak pasatzera. Euskaldunok elkarrekin ibiltzen gera eta gure gaiez hitzegiten dugu". Argi dago, beraz, euskaraz hitz egiteko aukera faltarik ez dutela. Marbellak jende famatu asko erakartzeko ospea du, eta Sabinen jatetxera futbol jokalaria eta pertsona famatuak azaldu izan dira batzuetan. Ardanza lehendakari ohia behin baina gehiagotan ikusi dute eta Gil alkate ospetsua Marbellako kaleetan ikustea ez dela zaila komentatu digu Sabinekin.

## Jess Martinez Verano

**E24 EBOI**




- 1924ko otsailaren 2an jaio zen Valladolideko Herrin del Campo herrian. 8 anai-arreba ziren, bera bosgarrena. Oraindik utne zela, familia guztia Zamorako Villarramielgo henira joan zen bizitzera. Gaztetan Villarramielgoko Eskolara joan zen.
- 12 urterekin, bere kuadrilakoekin hatera eta inguruetako ohiturei jarraituz, larrult lantzeko fabrika batean hasi zen lanean. Geroago zapa-ta konpontzaile moduan ere ibili zen.
- Villalon, Fretxilla, Bastromotxo eta inguruko heste hainbat henitan egiten ziren eifomerietara kuadrilakoekin joateko ohitura zuen. Soldaduzka Bilboko Marinan egin zuen eta Espainia guztia alde alde zeharkatzeko aukera izan zuen.
- Villaramielen ezkondu zen Casilda Criadorekin eta 5 seme-alaba izan zituzten.
- 1948 inguruan etorri ziren Elgoibarrem eta konstruizioko langile moduan aritu zen. Geroago Zabaleta Hnos. eta Anayak lantegietan ibili zen. Herriko lantegi askotan egin zituen ordu `estrak`.
- Gizon alaia eta txantxa zalca zen Jess. Lagun arteko txikiteoa eta emaztearekin dantzaztea gustatzen zitzaion.
- Morkaiko M.E.ko bazkidea zen, mendian sarri ibiltzen zen. Gogoko zuen barraskiloak eta perretxikoak biltzea, gero lagunen konpainian jateko.
- Jubilatatu zenean Benidormera eta beste leku batzuetara bidaiatu zuen bere emaztearekin batera.
- Kartetan jokatzeta, paseatzeta eta abestea oso gogoko zituen.
- Familia giroko gizona eta borondatetsua zen Jess. `Musa` ezizenez zen ezaguna gizon hizlari eta atsegin hau.
- 1989ko abuztuaren 18an hil zen 65 urterekin, oraindik sasoi onean zegoenean.

**Juanito Gorostiza**

**"Az** koiti txantxangorri bat ageri,  
hura zen berezia hura,  
agertu ta berehala  
txori guztiak agertzen ziren kantaka ta xirula"

**NOIZKO IKASTOLAKO AFARIA?**

20. urteurrenean. 2000. urteko Errege bezperan.



VIAJES  
**BILBAO EXPQESS**

**bidai agentziak  
babestutako atala**

Foruen plaza, 3  
Tel: 943 74 39 1 2

• M11911



A

Aste honetako erretratu zaharra **José Pe'rez Corte**"sek utzi digu. Plazako edo Txankakuako zubian, 1946ko San Bartolome jaietan ateratako argazkia da. Makina bat San Bartolome jai izan dira ordutik.

Argazkian ikusten ditugun kua-drilakoak zezenetara joan aurretik harrapatu zituen argazkilariak. Honakoak dira argazkian agertzen direnak, atzean ezke-

rretik hasita: **Manuel Unzueta, Carlos Anso-la, Felix Agirrebeña, Jose Ma Gabilondo (t), Imanol Vallejo (t), Luis Irureta, Pedro Beristain (t), Paulino Astiazaran eta Jose Maria Regil.**

Beheko aldean, **Juanito Martinez (t), Manolo Gil, Jose Pftez Cortes, Jose Antonio Zuazubizkar, Agustin Munain(t)** eta **Gerardo Gfirate (t)** agertzen dira. Josel esan digunez, zezenetan ibili ondoren, kolpe txikiren batzuk hartuta joan zen bat baino gehiago etxera.

## "Nire espezialitatea erlojuaren aurkako proba da"



### Ramn Javier Garcia

- **Adina: 19**
- **Zaletasunak:** udan surfa egitea.
- **Txirrindulari gustokoena?** Indurain, eta gaur egungoren bat aukeratzekotan, Jalabert.

- **Zein taldetan hasi duzu denboraldia?** Arrasateko *Born Jay* afizionatu taldeart nago. 23 urtez azpiko elite mailako taldea da, baina nik Lehendakariaren Lasterketetan hartzen dut parte, 21 urtez azpikotan 1. eta 2. urtean dauden bdrindularientzako lasterketak izaten dira. Denboraldia Santanderren hasi genuen larunbatean, martxoak 6.

- **Txirrindularitzari esker bidaia-tzeko aukera izan duzu, ezta?** Bai. Orain dela urtebete Euskadiko selekzioarekin Melillan izan nintzen, Espainiako Txapelketan. Jubenil mailako Gipuzkoako selekzioarekin 2 aldiz egon naiz Bretairetan (Frantzia), Munduko Txapelke tarako puntuagarriak ziren 2 itzulitan parte hartzeko. Alpeetan egiten den klasika bat prestatzeko ere, astebetetz egon nintzen kontzentratuta Alpeetako mendi batean.

- **Nolakoak izaten dira entrenamenduak?** Denboraldia bukatzen denean, neguan, gimnasioko lana izaten da garrantzitsuena, muskulazioa lantzea, alegia. Forma ez galtzen saiatu behar gara, horretarako ariketa egokienak mendian trabesiak egitea, mendiko bizikletan ibiltzea eta igerian egitea dira. Abenduan hasten ditut bizikleta gaineko entrenamenduak. Gehienez 4 edo 5 ordukoak izaten dira eta gutxienez 70 kilometro egiten ditut batez beste eguneko.

- **Zein dira zure ezaugarriak?** Ibilbide lauetan moldatzen naiz ondoen. Nire

espezialitatea erlojuaren aurkako proba da. Ibilbide menditsueta, berriz, daukadan gorpuzkera handirako ongi moldatzen naitela uste dut. Izan ere, 'eskalatzailea' izateko pisu gutxi edukitzea abantaila da baina hori ez da nire kasua.

- **Zertan pentsatzen da erlojuaren aurkako proba batean?**

Kilometroak eta denbora pasa ahala, gorpuzkak egindako esfortzuarri nola erantzuten dion pentsatzen joaten naiz. Zenbat pultsazio ditudan, giharrak gogorturik ditudan, hankek behar bezala erantzuten didaten... Gauza asko pasatzen dira burutik. Aurretik irten dena harrapatzea izaten da nire burutazio nagusia. Nire burua motibatzeke modua da, hankak ondo egotea bezain garrantzitsua baita motibazioa edukitzea.

- **Zergatik depilatzen dituzue hankak?** Batez ere estetikarengatik, oso itsusia baita depilatu gabeko txirrindulari bat ikustea. Baina garbitasunari loturiko arrazoiak ere badaude, erortzerakoan urradurak intea ohikoa baita eta zaurietan zornerik ez sortzeko beharrezkoa izaten da depilatzea.

- **Zer iritzi duzu dopajeari buruz?** Gehiegi exageratu da dopinaren inguniko eztabaida. Nire iritzi, Makarroiak jan eta ura edanez bakarrik ezin da eliteko txirrindularitzan lehiatu. Gakoa neurrian dagoela uste dut, produktu zehatz batzuk hartzea ez litzateke legez kanpokoa izan behar. Aldez aurretik har daitekeen kantitateari mugak eta neurri zehatzak finkatzea da kontua.

### Herriko 25 emakume izan dira 10. Lilathoian

Igandean, hidak 7, Lilathonaren 10. edizioa izan zen. Martxoaren 8a ospatzeko antolatzen den lasterketa herrikoa da Lilathoia. Urtero egiten da Donostian eta adin guztietako emakumeek hartzen dute parte. Aurten 420 korrikalari bildu dira eta ohi bezala, hainbat emakume elgoibartarrek hartu dute parte. 25 emakume inguru izan dira, tartean 16 urteko hiru neska. Argazkian urtero joaten diren herriko 13 emakume agertzen dira.



### ESKOLARTEKO KERALAK -

#### EMAITZAK martxoak 13 15. ardualdia

##### ABETO FUTBOLA (Mintxetan)

- Benjamin mutilak ■
- 10:00 Pilar B- Ikastola C
- 10:30 Ikastola A- Ikastola B
- 11:00 Herri Eskola B- Mendaro A
- 11:30 Herri Eskola A- Pilar A

- Benjamin neskak ■
- 12:00 Pilar A- Ikastola C
- 12:30 Ikastola B - Pilar B

##### SASKIBALOIA (Ikastolan)

- Intantid neskak ■
- A ZELAI A
- 9:00 Ikastola C - Insti
- 9:45 Ikastola A- Ikastola B
- 10:30 Pilar B Ikastolan
- 11:15 Pilar A- lastola E

##### ■ Infantil mutilak •

- 12:00 Insti - Pilar B
- 12:45 Ikastola Pilar A

##### B TELAI A

##### ■ Alebin mutilak •

- 9:00 Ikastola A- Ikastola B
- 9:45 Ikastola C- Pilar B
- 10:30 Mendaro B- Pilar A
- 11:15 Mendaro A- Herri Eskola

##### ■ Alebin neskak ■

- 12:00 Ikastola B- Pilar B
- 12:45 Ikastola C Pilar A

# Egoitz Mora txapeldunordea izan da Espainiako Judo Txapelketan

18 urtez azpiko mailan dabil Egoitz eta Espainiako Txapelketa 20 urtetik beherakoa zen

Egoitz Mora elgoibartarrak — Espainiako Judo Txapelketan hartu zuen parte martxoaren 5ean, Malagan. Euskadiko judoko junior selekzioarekin joan zen Egoitz. 17 partaidez osatutako selekzioa da Euskadikoa, guztiak Espainiako Sektoreko txapeldunak eta txapeldunordeak. Txapelketan gogor aritu ostean, Egoitzek zilarrezko domina irabazi zuen 90 kg-tik beherako pisuan. Gogoratu behar da kategoria honetan jadanik bi domina lortu dituela: zilarrezkoa Estatuko 18 urtetik beherako mailan eta brontzezkoa 18 urtez azpiko ranking nazionalan. Hala ere, aipatu behar da Egoitz 18 urtetik beherako mailakoa dela eta Espainiako Txapelketa, berriz, 20 urtetik beherakoa izan zela. Hortaz, meritu handikoa da txapelketara iritsi eta zilarrezko domina irabaztea.

Lehenengo konbatea Murtziako Antonio Nuñezek kontra irabazi zuen. Ondoren Samuel Sanchez madrildarraren aurka neurtu zituen indarrak. Egoitzek ranking nazionalan judoka honen aurka galdu zuen arbitroen eraginez. Baina, oraingoan Egoitzek zein den hobia demostratu zuen, epaileen beharrik gabe, eta borrokaldi osoan menperatu zuen ma-



Egoitzek ezin izan zion Madrileko ordezkariari irabazi eta beraz, zilarrarekin konformatu behar izan zuen.

drildarra, irabazi arte. Finalera pasatzeko konbatean Gaztela-Leongo ordezkariaren aurka lehiatzea suertatu zitzaion. Borrokaldi hau aurrekoak baino gogorragoa izan zen, baina aurkaria lurrera eraman zuen; 25 segundotan kontrolatu eta irabazi egin zuen. Hurrengo egunean, martxoaren 6an, Jonathan Delgado madrildarraren aurka jokatu zuen finala. Madrildarrak Egoitz lurrean hartu zuen menpean eta ezin izan zuen irten, eta konbatea eta urrezko domina galdu zituen.

Orain, Egoitz bi selekziotan dago: 18 eta 20 urtez azpikoetan, eta hurrengo lehiaketa Alemanian izango du.

## II. Pilota Eguna izango da larunbatean ikastolak antolatuta

Larunbaterako, hilak 13, II. Pilota Eguna antolatu du Elgoibarko Ikastolak *Tiroriro* tabernaren laguntzaz. Arratsaldeko 16:00etan hasiko da Ikastolako umeentzako ekitaldi hau. Denera 16 partidu jokatuko dira. Erdiak nesken arteko partiduak dira eta beste erdiak mutilen artekoak. Larunbateko Pilota Egunean 64 neska-mutilek hartuko dute parte. Partiduak eskuz binaka jokatuko dira, 12 tantura.



Guztira 16 partidu jokatu dira. Erdiak nesken artean eta besteak mutilen artean.

### EMAITZAK

#### Futbola

Noja 1- Haundi 1  
Elgoibar 1- Aurrera 1 (2.erreg.)  
Elgoibar 4 - Zumaia 3 (Neskak)  
Elgoibar 2 - Arrasate 3 (Kad.)  
Elgoibar 2- Aretxabaleta 4 (1. jub.)  
Bergara 1- Elgoibar 1 (Inf.)  
Cruces 5- Elgoibar 1 (L. N. jub.)

#### Areto Futbola

Zur Ta Lur Elg. 1 - Iraurgi 3 (1. maila)  
Zur Ta Lur Elg. 6- Bar Parisien 2 (Aulo.)

#### Futbitoa

S. Braga 9- Kunta Kinte 1  
Los Peñaskos 2- PSK 3  
Los Herminios 5- Aide Globun 2  
Lojantzi 1- Aizkorak Mendibil 4

#### Eskubaloia

Pagoaga Elg.12-C.B.Mereabilbao10 (Kad. nes.)  
Incela Elg 211- C.B.Mereabilbao18 (Jub. nes.)  
Ormaiztegi 29 - IMH Elg. 28 (Sen. Mut.)

#### Idarraga Kafeak 2. saria

HAUNDIke jokalarierregularrena 98/99  
JOKALARIA .....PUNTUAK

1- Aitor Trebiño .....	32
2- Eneko .....	24
3- G. Lazarobaster .....	24
4- Txasio .....	22
5- Iker Leonardo .....	22
6- Diaz .....	21
7- Madina .....	21
8- Ibon Muguruza .....	20
9- Caro .....	19
10- Beitia .....	18
11- Elkoro .....	15
12- Gururtxaga .....	12
13- Igor .....	11
14- G. Leonardo .....	1B
15- Loren .....	9
16- Portu .....	1

### AGENDA

#### Futbola, Mintxetan

Larunbata, 13  
17:00 Haundi - Zaragoza  
18:45 Pedrusko - Groseko (2 erreg.)  
Igandea, 14  
12:00 Elgoibar- Bergara (Ini. aurrekoak)  
16:00 Elgaibar - Amorebieta (L. N. jub.)  
17:45 Elgoibar - Kostkas (Kad.)

#### Eskubaloia, Kiroldegian

Larunbata, 13  
16:00 Pneumax Elg. - El Pilar (Kad. mut.)  
17:30 Teenomeca Elg. - El Pilar (Jub. mut.)  
Igandea, 14  
16:00 Pneumax Elg. - Serkoin (Kad. mut.)  
17:30 Tecnomeca Elg. - Serloin (Jub. mut.)  
19:00 IMH Elg. - Bergara (Sen. mut.)

#### Futbitoa, Kiroldegian

Igandea, 14  
10:00 Berrogei Duro - Lojantzi  
11:00 PSK - Aide Globun  
12:00 Kunta Kinte - Los Herminios  
13:00 S. Braga - Los Perlaskos

# 20 RI 21

## Sexplosion

Nork ez du ezagutzen (zaletuon atean) *Jon Spencer* eta bere *Blues Explosion*-a. *Pussy Galore* taldea zuhaitzaren sustraia bada, *Spencer Royal Trux* eta gaur aurkeztuko dugun taldea, **BOSS HOG**, Rock and roll-ari sua eman dioten txotxak ditugu.

*Cristina Martinez Jon Spencer*-en emaztea izateaz gain, (honek taldean kitarra jotzen du eta baita abestu ere), **BOSS HOG** laukotearen burua da. Nahiz eta azken diska hau orain dela 4 urtekoa izan, komeni da urte hauetan jaso duen hautsa kentzea. Rock and roll-aren, blues-aren, soul-aren edo punk-aren esentzia galdu gabe, txilio ederrak botatzen dizkigu, emakume honek, barruko guztia zeharo kanporatuz. Bere senarra, konposatzerakoan lagundu diola soma daiteke. Multinazional baten eskutik argitaratzeak (*Geffen*) zer esan nahi duen kontuan hartuz, eskertzekoa da senar-emazte honek ideiak musikatzerakoan gorde duen koherentzia, nahiz eta batzuk *L7* edo *Hole* bezalako taldeen barruan sartu. Emakume honek libidoa goian mantentzea lortzen du, eta ez musikalki bakanik. *Ike & Tina Turner* senar-emazteen "*I idolize you*" abestia bertsionatutzea ironikoki hartzerik ba al dago?

Iban Urizar



## Fausto Morgadoren margoak eta eskulturak Kultur Etxean ikusgai

Eibarko artista hau urte askoan Elgoibarren bizi izan da

*Marxoaren 18an, osteguna, Fausto Morgado eibartarraren margo eta eskultura erakusketa inaguratuko da Kultur Etxean. Arratsaldeko 19:00etan irekiko ditu ateak eta hilaren 31ra arte egongo da ikusgai. Faustok 3 eskultura eta 20 margo inguru aurkeztuko ditu. Morgado Salamanean jaio zen duela 52 urte, baina 12 urte zituenetik bizi da Euskal Herrian. Sorraluzen denboraldi bat pasa ondoren, Elgoibarren bizi izan zen 12 urtez.*



**G**aur egun Eibarren bizi eta Eibarko Artisten Elkarteko kidea da. Arte Eskolan ikasi ondoren piztu zitzaion margotzeko zaletasuna eta 1993 urtean Parisko Saint Quentin eskolan 'pastel ikasketak' egin zituen. Aurrez bere kasa margotzen zuen, baina profesionalki 1987an hasi zen margotzen. Inpresionismoa, zenbait lan abstraktu eta azken aldian hiperrealismoa dira lantzen dituen estiloak. Esan digunez, "hiperrealismoarekin argazki batean baino irudi garbiagoa lortzea da nire helburua". Kultur Etxeko erakusketan Faustoren margoek izan duten bilakaera ikusteko aukera izango da. Faustok azaldu bezala, "orain urte batzuk Luziano margolari elgoibartarrak Arrasaten antolatutako

Goiko argazkian  
Fausto  
Morgadoren  
margo  
hiperrealista.  
Eskuman,  
Fausto.



erakusketa batera joan ginen emaztea eta biok. Askok gustatu zitzadan eta emazteari esan nion ni ere horrela margotzen saiatuko nintzela. Hitza hartu eta pintzelak eta pinturak erosi zizkidan emazteak. Segituan ohartu nintzen ez zela uste bezain erraza, baina margotzea barruan neraman zerbait zela jabetzeko balio izan zidan".

## Ongarri Argazki Taldeak lokal berria dauka

Pedro Muguruza ikastetxe zaharrean dago egoitza

**A**stelehenean, hilak 8, Ongarri Argazki Taldeak lokal berria inaguratu zuen Pedro Muguruza ikastetxean. Udalak emandako lokala da eta aurrerantzean 'Usetxe Kultur Gunea' izenez ezagutuko da ikastetxe zaharra. Ongarrikoek Aita Agirre Enparantzan zuten egoitza, baina espazio txikiegia zen. Inagurazio ekitaldian 60 lagun inguru elkartu ziren, besteak beste, Juan Anjel Arrieta Euskal Herriko Argazki Taldeen Lehendakaria. Haritz Dantzari Taldeko kide batek agurra dantzatu ondoren, Gillermo Garate alkateak eta Jesus Mari Sarasua Ongarri Argazki Taldeko lehendakariak hitz egin zuten. Alkateak lehen argazkia errebelatzeko ohorea izan zuen eta ekintza sinboliko honen ostean, Vicente Guinea taldekidearen 'Karakate' ikusentzuneak eskaini zuten. Gaur



Jose Ronco

60 bat lagun elkartu ziren Ongarriren lokal berriaren inagurazioan.

egun 30 bazkide ditu Ongarri eta lokal berri honetan argazkiak errebelatzeko laborategia eta proiektzio gela daude. Bestalde, 2000 liburu eta aldizkariz osatutako liburutegia dute, bazkideek argazkilaritza eta arteari buruzko edozein kontsulta egiteko.



# 10 INTSUMISIOA: urteko lana

- 1- SOLDADUZKA EGINGO AL DUZU?
- 2- NOLA IKUSTEN DUZU EJERZITO PROFESIONALA?
- 3- INTSUMISO EGINGO AL ZINATEKE?
- 4- ZER IRITZI DAUKAZU INTSUMISIOARI BURUZ?
- 5- ARMADA PROFESIONALIZATZEN DENEAN, INTSUMISIOA KAUSA GALDUA IZANGO AL DA?
- 6- ZER DAKIZU INTSUMISIOARI BURUZ?

## ASIER ETXANIZ

17 urte

1. Ez. Betidanik horren aurka egon naiz eta armena ez zait irtenbide egokia iruditzen.
2. Errespetatzen dut baina ez nago horren alde. Ez zait iruditzen ejerzito baten beharra dagoenik eta are gutxiago jendea erakartzeko kanpaina egin behar denik.
3. Bai. Intsumiso egiteko asmoa neukan, baina jakin nuen hemendik urte gutxitara soldaduzkara joatea boluntarioa izango dela. Beraz, ikasketengatik luzapena eskatuko dut eta ez dut joan beharko.
4. Intsumisioek lan handia egin dutela iruditzen zait, eta uste dut beraiek lortu dutela soldaduzka boluntarioa izatea. Nik ere noizbait egin dut zerbait intsumisioaren alde, manifestazioetara joanez.
5. Nik uste dut intsumisioaren alde lanean jarraituko dela. Izan ere, beraien helburua ejerzitoaren eta militarren aurka egitea da.
6. Eskolan oso gutxi landu dugu gaia. Hala ere, nik intsumiso egiteko asmoa neukanez, jaso dut horri buruzko informazioa. Badakit zein zigor daudden, objetoretza ere badagoela hadakit... Zigorak oso gogorak direla tzen zaiit, lanpostu publikoetan onartuak izateko arazoak izan ohi dituzte intsumisioek eta kartzela zigorak gehiegizkoak dira.



## LOREA VAZQUEZ IGOR FERNANDEZ

17 urte

18 urte

1. Ez. Gerrak kalterako direla iruditzen zait. Gainera militarrei ordaindu egin beharko litzaieke. Joan nahi duena joan dadila, nik bere iritzia errespetatzen dut.
2. Nire ustez hori ondo dago. Nahi duena joan dadila, baina joan nahi ez duena ez dute obligatu behar.
3. Ez dut uste. Horrek ondorio latzak baitakartza. Besteak beste, kartzela zigorra bete beharra eta Estatuarentzat lanik ezin egitea.
4. Intsumisioan sartuta daudenek ez dute soldaduzkara joatea ongi ikusten eta ejerzitoaren aurka borrokatzen dute. Beraiek egiten duten lana ongi dagoela iruditzen zait.
5. Ejerzitoa profesionalizatzen denean, soldaduzkara nahi duena baino ez da joango. Beraz, intsumisioak indarra galduko duela iruditzen zait.
6. Eskolan gai honen inguruko eztabaidak eta lanak egin izan ditugu eta horren bidez intsumisioari buruzko hainbat gauza ikasi ditut. Besteak beste, intsumisioek zergatik borrokatzen duten ejerzitoaren aurka, jartzen zaizkien zigorak...



1. Erabaki hori ongi pentsatu behar den gauza da. Baina nik ez dudala egingo uste dut. Armen kontra nago eta soldaduzkara joanegero, armak erabiltzen erakusten dizute. Gainera, ejerzitoak diru asko mugitzen du eta nire ustez ez da beharrezkoa horrenbeste diru gastatzea.
2. Soldaduzkara joan nahi duena, joan dadila, nik bere erabakia errespetatuko dut. Baina ni ez nago horrekin ados eta jendea erakartzeko kanpaina egitea ez zait egokia iruditzen.
3. Bai, aukerak ondo aztertuta eta informatuta, egingo nintzateke intsumiso.
4. Mugimendu interesganian iruditzen zait. Soldaduzka egin nahi ez duen jende asko dago eta jendea ezin da ezer egitera behartu, intsumisioek jende horri laguntza handia eman diote.
5. Ejerzitoa profesionalizatuz gero, intsumisioak indarra galduko duela uste dut. Hala ere, ejerzitoaren aurka borrokatzen jarraituko duen mugimendua dela uste dut.
6. Hamasei urtetik aurrera soldaduzkarako deia gertu ikusita, horri buruzko informazioa lortzen saiatzen gara gazteak. Hala ere, ez dago gauza asko jakiterik.

# 12 ostirala

22:15 ZINEA  
"Enemigo Pablico"

23:00 KONTZERTUA  
"El duende del cuento"  
Lanbroa tabernan

# larun ata

11:30 KORRIKAREN  
ALDEKO  
KUESTAZIOA  
Antolatzailea:  
Elgoibarko AEK  
euskaltegia  
Plaza Handian

12:00 ZAZPIKI  
IRRATIAREN  
BATZARRA  
Zazpiki irratiko ganbaran

16:00 II. PILOTA  
EGUNA  
Antolatzailea:  
Elgoibarko Ikastola  
Ikastolako frontoian

19:30-22:15 ZINEA  
"Enemigo Pablico"

22:00 KONTZERTUA  
*Mutilated soul* (Elgoibar)  
*Kontra* (Zumaia)  
Gaztetxean

# 14 igandea

10:30 UDAL  
BANDAREN KALEJIRA

12:30 UDAL  
BANDAREN  
KONTZERTUA  
Herriko Antzokian

16:30 HAURREN ZINEA  
"Hormigaz"

19:30-22:15 ZINEA  
"Enemigo Pablico"

# 1 astele ena

22:15 ZINEA  
"Enemigo Pablico"

# 18 osteguna

19:00 FAUSTO  
MORGADOREN  
MARGOAK  
Kultur Etxean  
Apirilaren 5era arte

# 11 NE A



Zuzendaria: Tony Scott.  
Antzezleak: Will Smith,  
Gene Hackman, Jon Voight.

## Enemigo Pablico

Bizimodu lasaia eta zoriontsua darama Robert Clayton Dean (Will Smith) abokatu gazteak. Baina zoriontasuna ez da luzarorako izango, kongresista baten hil-keta leporatuko baitiote. Baina bera errugabea da. Hilketaren atzean Estatu Batuetako NSAko (Segurtasun Nazionalerako Agentzia) ofizial handizale bat dago eta orain hogeitun urte NSAko kidea izandako pertsona bat da Dean abokatuaren laguntzaile bakarra.

RI • • - - - - 111 R - - 111 RIRRIII - 111 - - - - - 11



• **Oihalak salgai**  
**'Euskal Presoak**  
**Euskal Herrira'**  
**lemarekin**

Euskal Presoak Euskalerriatzearen Aldeko Plataformak salgai jarriko ditu 'Euskal Presoak Euskal Herrira' lema duten oihalak. Bihar, zapatua (hilak 13), eguerdiko 12:00etatik aurrera San Frantzisko iturri parean jarriko duten salmenta postuan eskuratu ahal izango dira aipatutako oihalak. Herritar guztiak balkoietan izara hauek jartzera gonbidatu nahi dituzte.

• **Udal Musika**  
**Bandaren kalejira**  
**eta kontzertua**

Igandean, hilak 14, Udal Musika Bandaren kalejira izango da goizeko 10:30ean hasita. Eguerdiko 12:30ean, berriz, kontzertua eskainiko dute Herriko Antzokian. Jose Antonio Osorok zuzenduta, hauek dira joko dituzten piezak: *Himno a Valencia*, *Suite en La*, *La Bffijula*, *Coffee Serenade*, *Memorias de Africa* filmearen doinua eta *Rivieren Cyclus*.

• **11. Korrikaren aldeko kuestazioa**  
**egingo dute hilaren 13an**

Elgoibarko AEK Euskaltegiak, 11. KORRIKAREN aldeko kuestazioa egingo du bihar, martxoak 13, goizeko 11:30etik 13:30era. Egun eta ordu berean, KORRIKAREN aldeko materiala ere salgai jarriko da Plaza Handian.

• **Kontzertua Lanbroa tabernan El duende**  
**del Cuento talde ermuarraren eskutik**

Gaur, ostirala (hilak 12), *El duende del Cuento* musika taldeak kontzertua eskainiko du bere azken lana estreinatuz. Ermuar hauen musikaz gozatu nahi duenak, gaueko 23:00etan Lanbroa tabernara hurbiltzea besterik ez du.



• **Mutilated Soul**  
**eta Kontra musika**  
**taldeak Gaztetxean**

Bihar, hilak 13, kontzertua izango da Gaztetxean gaueko 22:00etan hasita. Bi talde arituko dira. Bate-tik, Elgoibarko *Mutilated Soul* taldeak joko du eta bestetik, Zumaiako *Kontra* izenekoak. Sarrera doan da.

1

**FARMAZIAK**

- |           |                    |   |
|-----------|--------------------|---|
|           | <b>Eguez</b>       | <b>Gaez</b>                               |
| <b>13</b> | <b>Etxeberria*</b> | <b>Anduaga</b><br>(Errosario kalean)      |
| <b>14</b> | <b>Etxeberria*</b> | <b>Anduaga</b><br>(Errosario kalean)      |
| <b>15</b> | <b>Yudego</b>      | <b>Yudego</b>                             |
| <b>16</b> | <b>Zabaleta</b>    | <b>Zabaleta</b>                           |
| <b>17</b> | <b>Etxeberria</b>  | <b>Anduaga</b><br>(Errosario kalean)      |
| <b>18</b> | <b>Escala</b>      | <b>Escala</b>                             |
| <b>19</b> | <b>Bidasolo</b>    | <b>Bidasolo</b><br>* (eguerdiko 2ak arte) |
- ESCALA: **Rekalde, 1**  
**Soraluze. Tel: 943 75 16 38**  
ANDUAGA: **Mendarozabai, 1**  
**Garagarza. Tel: 943 75 61 42**  
ZABALETA: **Kalebarren, 9**  
**Soraluze. Tel: 943 75 13 84**

**OKINDEGIA**

**14 igandea Doba Mercedes**

■ ■ ■ ■ ■ ZRZEIB ■ • B UI 11 • • IM • R ■ ■ ■ ■ 11 ■ ■ ■ ■ 11 • R

**ONGARRI**  
zine kluba



Zuzendaria: Atom Egoyan.  
Antzezleak: Iam Holm, Sara Polley  
eta Bruce Greenwood.

**El Duice Poruenir** (Canada, 1997)

Iazko Oscar sarietan zuzendari onenari ematen zaion sarirako hautagaia izan zen pelikula hau. Kanadako herri galdu hatan, haurrak eskolara daramatzen autobus batek istripua izango du eta haur asko hilko dira. Filmeak istripu izugarri horren ondorioak modu ezinhobean kontatzen ditu. Tonu baikorrean, seme-alabak galdu dituzten gurasoen sentimendu izutuak azaltzen ditu.

■ ■ ■ ■ ■ RI • ■ 11 111 111 ■ ■ ■ ■ 11 11 • • IR • ■ • 111 la • • 11

## Iana

### ◆ESKA INTZA◆

- 40-50 urte inguruko igeltseroa behar da hainbat lan egiteko. tr **943 74 31 02** (Josu edo Luis)
- Umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko emakume euskalduna behar da. tr **943 19 24 31**

### ESKAERA\*

- Emakumea eskaintzen da edadeko pertsonak zaintzeko edo etxeko lanak egiteko. ts **617 78 01 04** (19:30etik aurrera)
- Emakume brasildarra eskaintzen da umeak zaintzeko edo etxeko lanetarako. 10:00etatik 16:00etara. tr **943 74 07 07/74 08 81**
- ◆ Adinekoak eta gaixoak zaintzeko prest nago. Arratsaldeko edo gauetz. Esperientziarekin. it **630 20 97 31**

- Neska eskaintzen da. Arduratsua eta esperientziarekin etxeko lanak egin edo umeak zaintzeko. tr **610 68 52 95**

- Magisteritza ikaslea eskaintzen da umeak zaintzeko Elgoibarren edo Mendaron. Ordutegia hitz egitekotan. **943 74 20 94** (Yolanda)

## Salerosketak

### ◆SALDU\*◆

- G.A.C. Onix 75eko motoa saltzen dut. Paperak eta ordezko piezak ditu. s **617 93 14 74** (Eneko, 20:30-21:00)
- Peugeot Rapida motoa salgai. 50km./orduko abiadura hartzen du. tr **943 74 17 87** (gauetz)
- Camping denda altua salgai. 2 edo 4 pertsonarentzat, jangela eta toldoarekin. 10-15 egunetan ibilia. tr **943 74 05 37** (Mila)
- Fonl Courier Combi 1,8D saltzen da. Ondo zaindua, 1992ko uztailean erositako. tr **610 65 34 52** (gauetz)
- Gorrieriarentzako aparatua saltzen dut. 8 hilabetek> garantia du. tr **943 74 21 40**
- 14"ko pantaila, 10X CD ROMA eta S3 txartel grafikoa salgai. Oso merke. tr **943 74 00 07**
- 1 Citroen ZX 1.8i salgai. Egoera onean. Interesatuek deitu **630 52 60 52** telefonora.
- Dynastar modeloko eskiak saltzen dira. Altuera 1.85m. Nordica botak. zenbakia 42-43. tr **943 74 18 55**
- Txalet mudeloko kanpin denda handia saltzen dut. Egoera onean. Abantzea, egoteko lekua eta bi gela bikoitz ditu. **943 20 68 48** (8:00-16:00) **943 74 05 14** (1930enk aurrera)

## Bestelakoak

- Ostiralean, hilak 5, M. Markez eta P. Aristiren ekitaldian norbaitek aterkia aldatu zidan Kultur Etxeko sotoan. Nirea berdea eta kuadroa da. Eta orain dudana, berenjena kolorekoa, *Kerastase* etxekoa da. Hartu zuenak ekar dezala mesedez. AEK euskaltegia.
- Santa Polan bungalow-a alokatzen da Abuzturako. tr **943 14 34 31**. (13:00(1-17:00 eta 20:00-22:00)
- Erizantzan diplomatutako neska euskalduna eskaintzen da pertsona gaixoak edo edadetuak zaintzeko, etxean edo ospitalean. Egunez nniz gauetz. a **943 74 27 78** (Itziar)
- Zilarrezko pultsera bat aurkitu nuen Txariduna eta Iriondo tabernen inguntan. Zera dauka idatzita: 11-11-95 eta Xabier izena. Jabeak dei dezala **943 74 04 90** telefonora.
- Bi logela alokatzen dira Santa Klara 20,7C. ts **943 74 24 06** (M. Tere).
- Taberna hartuko nuke errentan. tr **943 75 10 16** (Merixe edo Jesds)
- Bi logela alokatzen ditut. te **943 74 03 93** (19:30etik aurrera)
- Caritas-ek butanozko estufa eta garbigailua behar ditu. tr **943 74 15 09**
- Jubilazioagatik, martxan dagoen negozioa traspasatzen da Merkatu Plazan. Prezioa hitz egitekotan (aukera ona). a **943 74 02 27** Celsa
- Urrezko aiantza galdu nuen Inauterietako larunbatean. tr **943 74 40 56** (Manoli)
- Lehengo egunean, inauterietan eta hondartzan ateratako argazki batzuen negatiboak aurkitu nituen. Jabeak Udaltzaingoa aurkitu ditzake.
- Urrezko belarritakoa topatu nuen duela aste bete San Frantzisko kalean (Karkizano inguruan). tr **943 74 05 17**

## Garajeak

- Garaje itxia salgai Pista Beltzean. a **943 74 03 81**
- Garaje itxia alokatzen da Arretigorren. tr **943 74 12 53**
- Leku Ederren garaje marraduna edo itxia alokatu nahi nuke. tr **930 54 99 31**
- Garajea saltzen da Urasandi 6an. Argi independentea. tr **943 74 08 63**

## Etxebizitzak

- Etxea saltzen da Santa Ana kalean. 2. pisua da, ganbara eta igo-gailutuekin. s **943 74 03 83 943 74 18 34**
- Lokal bat alokatu nahi genuke. 20.000 pta. ordaintzeko prest gaude lokalaren arabera. tr **943 74 35 68** (Abraham).
- Ganbara but alokatu nahi nuke. Gehienez 30.000 pta. ordaintzeko prest nago. is• **943 20 01 01**
- Etxehizitza saltzen da Errosario kalean. tr **943 74 17 95**
- Pisua edo buhardila bat hartuko nuke alokairuan. tr **943 74 31 75**

## Agurrak

- Zorionak Unairi eta **Ion Garcia Abadi** gaur eta astelehenean urteak bete eta beteko dituztelako. 6. mailakoen partez eta Unairi bereziki S.P.ren partez.
- Aupa **Nagore Aranzamendi**, zer uste zenuen, zutaz ahaztuko ginela? Zorionak kuadrila guztia- ren partez.
- Zorionak **Oihana Astorkiari** Adrianekin irteten hasi delako.
- Zorionak **Sandra!!!** Ze, zenbat izan dira? II-12-13... Badakigu 11 direla. Zorionak solfeoko lagunaren partez.
- Zorionak **Unai Arceri**, hilaren 9an 11 urte bete zituelako.
- Zorionak **Sandra**, hilaren 6an 11 urtetxo bete zenituelako. Zure lagun Irupe, Laura, Ainhoa, Lucia, Maitane eta Pilarreko 5. mailako nesken partez. Zorionak!
- Piripiripipi, piripiripipi... zorionak **Amaia** eta barkatu larunbatean Mauxitxa txarangak zuretzat jo ez izatem baita ere zuk dakizun batek mutilik ez oparitzea. Nahi baldin baduzu zure lagunok abestuko dugu. D.B.H. 2koen partez.
- Zorionak **Iratiri** hilaren 9an 10 urte bete zituelako. Musu bat Daneleren partez.
- Zorionak **Mariniri, martxoaren Iian** urteak bete zituelako. Maialen eta Ifigoren partez.




- Zorionak Leireri larunbatean urte bete egingo duelako. Familia osoaren partez, bereziki Unai, Maider eta Eneritzen partez.

- Zorionak **Ane Artolari** gaur 3 urte bete dituelako. Familia guztia- ren partez. Ondo pasau eguna!



- Zorionak **gure etxeko Ixikltuari** bere 5. urtebetetze egunean. Ondo pasa, Idoia- ren eta etxeko guztien partez.



- Zorionak Pacori hilaren 10ean urteak bete zituelako. Emazte eta seme-alaben partez muxu handi bat.





- Zorionak **Iñaki Aranberri** larunbatean 16 urte egingo dituelako. Familia guztia- ren partez.



- Zorionak **Nereari** hilaren 11an urteak bete zituelako. Guraso eta Oselen partez. Zer moduz Muxi? Ondo pasatuko zenuen zure urtebetetzean, ezta? Zorionak zure lagun guztien partez.



- Zorionak **Iñeri** bere 6. urtebetetzean. Bere guraso eta ahizpa Lauraren partez inuxu handi bat.



- Zorionak **Elorri** hilaren 16an 8 urte beteko dituelako. Guraso eta ahizpa Nerearen partez.



- Zorionak eta 8 tirakada belarrietatik **Itxaso Egariari. Beti, eta bereziki asteartean, hilak 16**, zorionsu izan zaitzela opa dizugu zure inguruko guztiok. Zorionak Itxaso!

# Martxoak 19

# Sa

## ose eguna LETEjantzidenda



**KARKIZANO  
mertzeria**



**M E K A N O S A** paperdenda



# aitaren eguna

Loreak oparitu.  
Zergatik ez?

q5/4



**MIMOX** loradenda

**MUXI** kirolak

40,- -441



**TORO**  
zapatadenda




**OSTARKU**  
argazkigintza



**LIZURI** optika




# BIZITZEKO ERA BERRIA



**M**ez  
Magdalena  
Maala

**Estilo herrizailea duen ingurua sortu nahi dugu. Gaur egungo bizitzeko erari konponbide berriak eta behin-betikoak eskaintzen dizkiogu. Apartamentuak © 2,3 eta 4 logelako etxebizitzak. Terraza zabaleko duplex-ak © Etxebizitzak lorategiarekin. Garajeak © Trasteiekuak eta saltokietarako lokalak.**



Argibideak eta salmenta: obran bertan



**943 74 24 00**

Sustatzailea:

**MENDIBIL  
ELGORRIAGA,  
A.I.E.**

Eraikitzailea:

**4111ZA  
WAIMIL  
CONSTRUCC~S.A.**